
KULTURA

FRAI BARTOLOME. LAPURRETATIK EKOLOGIARA: OHAR LABURRA

Baten bat harritu du, dagoeneko, goiko tituluak. Nola –esan dezake horrek— gure Frai Bartolome ekologia autuetan sartu, ekologia bera asmatu gabe bazegoen garai hartan? Izan ere, horretarako –eta beste askotarako ere—, bada gauza gure Frai Bartolome eta diodanaren lekuko, hona hemen haren lorantzak, lapurretako kontuetan hasi eta ekologiaren gorabeheretan bukatzen direnak.

Badugu horretarako tresna berria, arestian gure eskuetara etorria. Frai Bartolome fraide genuen, karmeldarra hain zuzen ere. Luis Baraiazarra eta Julen Urkiza haren ordenakideek lana euren lepo hartu eta berriro ekarri dizkigute Frai Bartolomeren orrialdeak gure begietara, ezagun genituenak berrargitaratuz eta ezezagunak zitzaizkigunak dastatzeko tenorean jarriz. Ari naiz, ari ere, oraintsu argitaratu den Frai Bartolomeren “*Idazlan Guztiak*” liburuaz¹.

Aspalditik genituen ikusiak eta irakurriak, Karmeldarraren *Icasiquizunac*. Zabalduagoa zen, aurkako iritziak erakustearren edo, esku bereko *Euscal-Errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizko-gatz-ozpinduba*. Azken horri dagokion nimiñoena

¹ Frai BARTOLOME SANTA TERESA, *Idazlan guztiak*. Bilbo, 2000. 707, 1.009, 1.013. orr.

ere kendu gabe, *Icasiquizunac* horietan aurkitu ditugu guk hainbat erakuste eta irakaste, adibide eta eredugarri, mamiaz zein azalaz aintzat hartzekoak izan dakizkigukeenak. *Icasiquizunac* ere, gustokoak izan ditugula, hainbat pasartetan bederen, ezin uka edo izkuta.

Sarri askotan, halako testuak, erlijio mezua izan ezik, ez dirudi erabilgarri direnik gaur egungo euskaltzaleentzat. Erlilio mezua ere, bistan da, Eliza Katolikoak aspalditik du egunera-tua eta itxuraldatua. Bestalde ere, euskal filologo eta hizkuntzalariek halako lerrakera bizia erakusten dute, testu horietan euren arakatze eta ikertze lanak ontzeko. Artez eta zuzen da hori, eta besteontzat ere erakusgarri.

Bada, alabaina, jakintzagai horietatik kanpo gatozenontzat ere, zer bazka eta non ikasi testu horietan. Hartara, osterantze-ko zaporea bilatu behar gure frailearen luma kontuetan eta horren idatzietan buru-belarri sartu, letra inprimatueng zirrikitucta-tik izpirituaren solaserako aldiak eta txandak aurkitu ditzakegukelakoan.

Xarma berezia igartzen dio berehalakoan edonork Frai Bartolomeren euskal testugintzari. Doinua eta soinua, ez aparte, zentzumen ahalak ere hurbil eta barne.

Artean ere, ikasgaiak. Bat-batean, sermoigintza klasikoaz beteriko orrialde horien artean, esanguratsu oso, hamaikatxo ger-takari eta pasadizo, bizitzatik bertatik jasoak, irakurleei zer era-kutsi eta idazluma dotorea behar bezala argitzeko puntuau jarriak.

Helburua du idazleak, ez letratu, irakasle eta gainontzeko *jendemoduak*, ezpada herri xehe kristaua. Egilearen berbetan csateko,

*«Verbeetia imini dot neure erricua; daquidana.
Eusqueeraco guztietati apaindubeena, ederrenea ta ezti-
tsubeena izan ez arren, izan leiteque, euscaldunen baz-*

tar bateti bestera eche guztieta dei eguinda, iragota, cer nai daven onduen zaarrai la gaztiai aituko deutseena ta adierazoco deutseena. Alan uste dot. Ta jazo jat Naparruan, Quiputzetan ta Vizcaian, eldu nasan lecubetan.»

Tarteka-marteka ere, esan legez, erakusgarriak. Hari nagusia-ren ehotzera, Eliza Katolikoaren egiak, dogmak eta doktrina. Doktrina zabala, Erromako Doktrina edo Katedrakoa. Pasarte batzuetan hitzez hitz euskaratua. Beste batzuetan adierazia, egokitua eta galbahetua, hartzaileen pentsamoldetik abiatura; beti ere, moldatua, eta ez nahasia, punturik txikerre-nean ere ez baitio etsi Frai Bartolomek Elizaren dogmatikari.

Dogmatika horretan oinarriak behar eta oinarriok, iturburuetatik bertatik datozkio, aurreiaz esandako Erromako Katedrakoa zein Aita Santuen agindu edo Elizaren idazle aukerakoen esanetatik.

Ezin, hortaz, Frai Bartolomeli gure garaiko modernitateak eskatu. Bai, ostera, mezu hori emateko tonua eta aldarte propioa, gauzak nola eta zertarako esan ondo zertuak.

Eskabide horretan dugu egunotako euskara ere. Noraezean ikusten dute batzuek, inolako aurrekinik gabe euskarak goi mailan bizi dituen lehen aldiak hauexek balira bezalaxe. *Aurrekorik ez, ni naiz lehena!* batzuek ebatzia eman dute arin-arin, ohartu gabe aspaldiko hori, arbuiagarri baino, ohoregarri eta erabilgarri izan dakigukeela.

Sarri askotan, erabilgarritasun puntuak ere non bilatzen ez dakigu. Hangoa, hemengoa... ez dakit nongoa ekarriko digute gogora askok, hura berrien eta egokien balitz legez. Betoz berriak, zalantzak ez. Zaharrak alboratzea, dena den... guretzat ez. Uzkur berrikeriarenurrean, baikor berritasunei buruz. Ezin *bago!* esan, bizitzak *baugi!* eskatzen digunean. Ezin, orobat, tradiziorik gabeko amildegian bertan behera joan, hizkuntza-

ren arloan behintzat, belaunaldien arteko zubi ahaleginak egi-teke.

Baso-mendiak: Erromako Katekisma eta Bizkaiko Forua.

Nonbaitetik hasi behar eta hona hemen, esandakoaren leku-ko, lege kontua. Ogibideak gure burua norabidetu, *Icasiquizunac* zabaldu eta ageri-agterian, besteak beste, lapurretan egiteko moduak. Ez diogu —gure kautan gabiltza eta— Frai Bartoloméri eskatuko zehaztasun handirik, hura ez baita-bil lapurretak azaltzen lege ikuspegitik. Hark, alabaína, nondik norako franko eman gai horretan. Lapurreta motak alderatu ditu Erromako Kateximatin eta abiadan doa, latinetik euskarara, esatari trebe:

Erromako Katekisma, latinez eta gazteleraZ:²

- L** «*Sunt autem plura hominum genera: ac primun est eorum, qui surari imperant (...)*
- G** «*Estos pues son de muchos generos: los primeros son los que mandan burtar (...).*

- L** *Alterum genus, (...) suasores sunt, atque impulsores Furtorum.*
- G** *El segundo genero, (...) son consejeros y promotores de los burtos.*

- L** *Tertium genus est eorum, qui cum Furibus consentiunt.*
- G** *El tercer genero es, el de los confientes.*

² - Pius V, *Catechismus ex decreto SS. Concili Tridentini ad parochos Pii V. Pont Maximi jussu editus*. Venzia, 1781, 390. orr.

- SAN PIO V, *Catecismo Romano: compuesto por decreto del Sagrado Concilio Tridentino para los parrocos de toda la Iglesia y publicado por Pio V, Lorenzo Agustín de Manterola (traductor), Tomo segundo. Iruñea, 1777, 139-140. orr.*

- L** *Quartum genus est eorum, qui participes Furorum, inde ipsi etiam lucrum faciunt (...).*
- G** *El cuarto es, el de aquellos que participan y sacan ganancia del burto (...)*
- L** *Quintum genus est Furum, qui cum Furta possint prohibere, tantum abest (...)*
- G** *El quinto genero es, el de aquellos que pudiendo prohibir los hurtos (...) permiten y conceden licencia de cometerlos.*
- L** *Sextum genus est eorum, (...)non indicant rem; sed eam se scire dissimulant.*
- G** *El sexto genero (...) no lo descubren, sino que disimulan saberlo.*
- L** *Postremum genus est, quod omnes compleetitur Furorum adjutores, custodes, patronos, quiue illis receptaculum præbent, ac domicilum (...).*
- G** *El ultimo genero es, el que comprende á todos los coadjutores, guardas, y patronos de los hurtos, y á los que dán acogida y casa a los ladrones (...).*
- L** *Ne hujus quidem sceleris omnino sunt expertes approbatores Furorum, & laudatores (...»*
- G** *Tampoco están enteramente libres de este delito, los que aprueban, y alaban los hurtos.»*

Frai Bartolome, euskaraz:

«Cristinaubari aituten emoteco nos jaso viar daven inori ostubaz edo ostian eguindaco caltia, icentetan ditu

*Erromaco Catecismuac zortzi calteguin modu edo lapur modu. Ta dira: 1. Lapurretia aguindu daveenac. 2. Conseju emon daveenac. 3. Lapurretia ontzat emon daveenac. 4. Lapurretaan oneria edo provechuba euqui daveenac. 5. Lapurretia eragotzi biarrian, eragotzi ez daveenac. 6. Lapurrac azaldau biarrian, azaldetan ez ditubeenac. 7. Lapur estalzailliac. 8. Inorena ostu davela-
co lapurra alaveetan edo abonetan daveenac. Oneec guztioc, bacochac bere moduban, ezarten deutsee euren burubai ostuba viurtuteco zorra. Ostu davena bera da lelengo atcera ostuba viurtu biar davena. Ta aren urrengo dira beste esan dirianac. Calte eguite edo lapurreta modu bacocha esanagaz aituko dozu, cristinaubac, obeto doktrina au.»*

Frai Bartolomek biziki ongi ezagutzen ditu bere entzuleen jaidurak eta ekanduak. Ohartuta dago horiek hur-hurretik behar dutela adibidea, lapurretako kontu horiez ondo jabetzeko.

Baserritarrok ditu entzule eta aditzaile eta horientzako morduko autuak aipatu beharko ditu, karmeldarra ondo ulertua izango bada. Irudiak eta ezaugarriak nondik bereganatu eta baso-mendietan aurkitu ditu fraileak bere entzuleak hobeto ohartarazteko moldeak.

Baso suteak eta bestelako mendi lapurretak ditu Frai Bartolomek erakusbide, doktrinatik hartutako teoria orokorra Bizkaira bertaratuz. Hartara, lapurretak dira Frai Bartolomerentzat honako hauek:

«Gauza batzuc dagoz casic jaquinac sail onetan: 1. Larria gueituteco, basuari su emotia eragotzita dago Vizcayco leguian. Ta subac eguiten daven calte guztia jaso biar dau su emailliac edo aren lagunac. 2. Inoren basoti ostutia egurra, iquetza edo materijala inori salduteco, lapurretia da, oi danez. Baita egurra ostutia bere, agaz iquetza eguinda iquetza salduteco. 3. Lapurretatza contetan da,

echetaraco izan arren, asco balijo daven ta auzo guztiac saldu oi daveen erico materijala ostutia inoren basoli. Zura, ola, latia... ta beste materijal nausitzat baserritar on-draubac contetan ditubeenac. 4. Lapurretia leguez da, nai egurra, nai orrija, nai beste gauza bat quendubagaz, inoren arbolac galduzia edo arboletan calte jaquina eguitia. Onezaz gaineracua erabaguico davee basoco lapurreta ta calten gainian, obeto aituten jacuenao.

Lapurretan ari direnek, ordainbide eman behar. Hala ere, lege-lariari arreta berezia sortzen diona, zera da, Bizkaiko foruaren aipamena. Frai Bartolomeren aipuak, bestenaz ere, Jaingoikoaren legea eta gizabanakoaren legea ekartzen ditu bere esparrura, garai hartan ohiko zenez.

Zein, ordea, Bizkaiko Foruaren legeak, baso-mendietan gordetzekoak? Modu askotakoak, eta historiaren bilakaerari dago-kionez, aldi desberdinakoak ere. Egun, ziur asko, ekologiarren ildotik ikusiko genituzke horiek, ingurumena artatzeko modukoak. Sasoi hartan, alabaina, hil ala bizikoak, mendi-basoek berebiziko zereginha zeukatelako Bizkaiko bizimoduan eta ekonomian. Oinarrizko bizimodua, zalantzatik ez, lege zibil eta elizarenak babestua.

Augustin Zubikarai ondarrutar idazle goraipatuak durundia-ren hotsa igarri du (KARMEL 1988-4) Frai Bartolomeren tanke-ran. Hots hori, zernahi gisaz, ez dator huts-hutsean, ondo arra-zoitua baino. Izan ere, Frai Bartolomeren ohar horiek bitan izan dakizkiguke ohargarri:

a) Ikusteko eta egiazatzeko Bizkaiko Foruen indarra eta bi-zirautea, deiak ez baititu egiten hark Spainiako legeetara, ez-pada foruetara, zuzen-zuzenean. Bazekien Frai Bartolomek horretan berebiziko irudia zerabilela, entzule horiengana zerikusirik pisuzkoena zeukana, baserritar ingurumarietan.

b) Badator, bigarrenez ere, hainbat kontzepturen euskaratze lana. Lehen alderatu ditugun hiru hizkuntzetako testuetan, na-

barmena da haren dohaina, hainbat lapurreta konturen zertzeladak euskaraz egoki emateko. Hortan, nortzuk lapurrik, nortzuk haren estaltzaileak, nortzuk, azkenean ere, lapurreta bera “*abonetan daveenac*”. Segur asko, gaur eguneko zigor zuzenbidea euskaraz emateko orduan ezagutu beharrekoak.

Beharrekoak eta beharrenak ere, esan dezagun bidenabar, lehenengo hora, hots, euskal tradizioarena beste behin ere plazaratzeko abagunean.

Auzia, hala ere, ezin bukatutzat eman, jakingarri baitzaigu, jada irakurria izan denez, *Frai Bartolomerentzat Vizcayco legua* hori zein den.

Hona hemen aukerakoenak:³

1) Fuero Biejo de las Encartaciones de Vizcaya (1503):

Titulo II:

Ley III: Del que pone fuego en lo suyo con daño de otro

Ley IV: Del que desuella arbol ó quita corteza

Ley IX: De los que cortan arboles de otros ó comuneros

2) Fuero Viejo de Bizkaia (1452) :

Capítulo XLII: Del que pone fuego á su facienda

Capítulo XLIII: De los que quitan las cortezas á los arboles

Capítulo XLIV: De la prueba de las tales quemadas é daños

Capítulo XLV: Del que arrancare árboles á sabiendas ó los cortare

3) Fuero Nuevo de Bizkaia (1526):

Título 34:

Ley XI: Como se ha de poner fuego á las heredades para que no haga Daño, y la pena del que lo pusiere

Ley XII: En qué lugares no se puede poner fuego

³ BIZKAIKO FORU ALDUNDIA, *Bizkaiko Foru Legeria*, I liburukia. Bilbo, 1991, 76-77,122-123, 339-341.or.

Ley XIII : Cómo se ha de poner fuego á heredad propia

Ley XIV: Que no se quiten las cortezas á los árboles agenos, y la pena de ellos

Ley XV: Sobre los taladores de arboles, é viñas agenas

Ley XVI: En qué casos por las cortas no se puede proceder criminalmente

Ley XXI: La probanza que se tiene por bastante, contra los que hacen los daños contenidos en las leyes de este título en los campos, y despoblados.

Argi gera bedi, beraz, ohartxo honen ondorioz, Frai Bartolomeren testuak ematen digun Bizkaiko legearen lekukotza. Besterik ezean, Bizkaiko foruen indar erakusle, eta zeresanik ez, zubigile egokia, Eliza Katolikoaren doktrina bertaratu eta hartzailen adimenduetan ipintzeko saio bikaina. Hitz batez esateko, *lapurretatik ekologiara* –edo ekonomiara, nork daki!– doan bide labur bezain luzean euskarazko laguntzaile ezin hobea.

Andres Urrutia.